



Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus

BAT Aldizkariaren urteko laugarren zenbakia, azken urteotan egin dugun bezala, HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarietarako sariei eskainitako monografikoa da; lehiaketan parte hartu eta sariaren irabazle izan diren hiru lanek eta lehiakide izan diren beste hiruk osatzen dute, beraz, BAT 97. zenbakia.

Xabi Aizpurua izan da VIII. Hausnartu 2015eko irabazlea hizkuntza-ekologiaren pentsamendua eskoletan lantzearen pertinentziaz egindako ikerketa dela medio; "Euskararekiko pertzepzio soziolinguistikoa nola landu udalerrri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnaguneen ideia" izan da lanaren izenburua. Egilearen esane-

tan, arnagunetzat hartzen diren udalerrri euskaldunetako eskoletan ere, soziolinguistika-esparruko ezagutzan eta lanketan gabezia garrantzizkoak sumatu dira. Lan honetan, gabezia horiek detektatu nahi izan ditu egileak eta erantzunak eskaini, hizkuntza-ekologia eta arnagunearen kontzeptuak eta pentsamentuak erdigunean jarri.

"Euskara pasilloetan galduta - Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroran" du izenburua lehiaketan bigarren sariaren irabazle izan den **Jaime Altunaren** lanak. Artikuluan nerabeen hizkuntza-erabileran gertatzen diren aldaketak aztertu ditu. Abiapuntuko ikerketa Donostiako 13 urteko sei gazterekin egindako lana da, hizkuntza-mudantza fenomenoan sakontzeko helburuarekin. Oinarritutako teknika hizkuntzaren antropologian eta etnografian finkatu da, nerabezaroran gertatzen diren praktiken aldaketetatik abiatuta. Esate baterako, testuinguru horretan "praktika-komunitatea" kontzeptua lantzetik emaitza interesgarria-


goak lortzen dituela adierazten du egileak “hizkuntza-komunitatea” erabiltzetik bainoago. Nerabeek praktika-komunitate anitzetan biltzen dira sozializazio-fase horretan. Ateratako ondorioak honela laburbiltzen ditu egileak berak: alde batetik, ikastetxetik kanpo gertatzen diren aldaketek pisu handiagoa hartzen dutela ikusi du, ikastetxean gertatzen direnek baino, bestetik baieztatu du kode-aldaketarako joera oso handia dagoela nerabeen artean, eta, azkenik, euskarari uko egitearen fenomenoan talde identitateak garrantzia handia duela.

Haritz Etxeberriak irabazi du HAUSNARTU lehiaketako hirugarren saria “EAEko gehien-go euskalduna duten udalerririk epaitegi erdaldunetan” lanarekin. Udalerririk horietan lan-hizkuntza euskara izateko indarrean dagoen Legediaren azterketa egin du egileak. Berezi, EAEn kokaturiko Administrazioen artean erabili beharreko hizkuntza aztertu du, horretarako, toki administrazio eremuan indarrean dagoen Legedia aztertuz. Ondoren, Jurisprudenzia Konstituzionala eta Auzitegi arrunten Jurisprudenziaren eboluzioa ere aztertu du.

HAUSNARTU lehiaketan saririk jaso ez izan arren ondorengo hiru artikuluek bertan aurkezturiko lanak dira: “Machirulo/kosmo-paleto, puta/cashero” Euskararen aurkako diskurtsoei aurre egiteko hainbat zertzelada Mugimendu Feministaren teoria eta praktiken iturrietatik” izenburuko lana **Mikel Ozaitak** sinatzen du. Lan honetan, euskararen

kontrako diskurtsoei aurre egiteko azken denboratan zabaltzen ari den disziplina desberdinetako transferentzia proposatzen du: euskararen kontrako diskurtsoei mugimendu feministak erabilitako teoria eta praktiketako hainbat irakaspen egiteko nahia da. Egileak “hizkuntza-aktibismo berri baterako proposamen kontzeptual eta praktikoa” mahai gaineratzen ditu, euskararen normalizazioaren alde bidezidor berri bat proposatuz.

Iñigo Igartzabalek idatzi du “Jarreretatik portaerak; ulertu nahian” artikulua. Eta izenburuak dioen modura euskal hiztunen hizkuntza-portaeren zergatiak azaltzeko saiakera bat da; Kezka nagusi batetik abiatzen da egitea, hau da ezagutza-datuek erakusten duten bilakaera positiboak ez izatea espero zitekeen korrelazioa erabilerarenarekin. Bere hitzetan esanda, bada oso kontuan hartu beharreko fenomeno bat, alegia, “euskaraz egin nahi izatea askotan ez dela aski izaten”



eta horrela, egoera horietan jarreretatik por-
taera kontzekuenteagoetara igarotzeko tek-
niken beharra aldarrikatzen du.

Alexander Aginagaldek atzerriko uniber-
sitateetan euskara eta euskal kulturako ira-
kurletzak bitarteko, ikasleen iritziak bildu
ditu. “Etxepare Institutuaren irakurletza
atzerriko unibertsitateetan; euskararen kanpo
zabalkundeari egiten dioten ekarpena eta
hizkuntzaren nazioarteko irudian duten era-
gina” du izenburu lanak. Etxepare Euskal
Institutuak bultzatzen du irakurle-sarea
munduko hogeita hamalau unibertsitatetan

eta, horien bitartez euskararekin harremana
duten ikasleen iritziak jaso ditu egileak.
Egindako ikerketan oinarrituz, Etxepareren
irakurletzek euskararen kanpo zabalkundean
eta nazioarteko irudian izan dezaketen era-
ginaren inguruko hainbat ondorio ere plan-
teatzen ditu.

Munduko soziolinguistikaren leihoan aldiz-
kariaren atal abiatu berrian **Beñat Garaioeren**
“Hizkuntza gutxituen bizi-indarra neurtzen
duten eskalak aztertzen: euskararen eskala
bat osatzeko proposamenak” artikulua ar-
gitaratu da. Egilearen hitzetan “munduko
hainbat hizkuntza hiltzorian direnez, eta
beste hainbeste egoera gutxituan daudenez,
hainbat hiztun eta eragilek egoera hori iraul-
tzeko hamaika ekimen jarri dituzte abian.
Egoeraren azterketa zehatza edo diagnostikoa
egitea behar-beharrezkoa da eta horretarako
sortu dira hizkuntzen bizi-indarra neurtzeko
eskalak”. Artikuluan egileak nazioarteko es-
kala horiek azaldu ditu eta era kritikoan az-
tertu ditu bi helbururekin: lehena, adierazle
sistema berri honi hainbat aldagai proposa-
tzea, eta bigarrena munduko eskala horiek
nolakoak diren ezagutzea. •